



Esp.kodea: 2021KZUD0006

Gaia: SORBELTZA IZENBURUA DUEN
EUSKARAZKO FIKZIOZKO FILM LABURRA
AMAITZEKO LANKIDETZA PROPOSAMENA
Hasiera eguna: 2021/09/02

JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko irailaren 30ean egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

“Iban del Campo: laguntza eskaera, “Sorbeltza” laburmetraia egiteko (2021KZUD0006)

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Kultura eta Euskara Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Iban del Campok eskatu du 8.000 euroko dirulaguntza zuzenduko duen “Sorbeltza” izeneko laburmetraia egiteko.

Gaia aztertuta Kultura eta Euskara Batzordeak arrasatearraren sormen lana bultzatu guran proposatu du Iban del Campori 3.000 euroko dirulaguntza ematea —zuzeneko dirulaguntzak partidaren kontura 1.02.00.481.334.01.00— “Sorbeltza” laburmetraia burutzeko. Laguntza jasotzeko bi baldintza hauek jarri dira: laburmetraia Arrasaten aurkeztea eta laburmetraiak kredituetan Arrasateko Udalaren laguntza jasotzea. Dirulaguntza horrela ordainduko da:

- 1.- Diru kopuru honen %60, 1.800 euro, akordioa hartu eta epe laburrean.
- 2.- Gainerako %40, 1.200 euro, laburmetraiaren aurkezpena egin eta egiaztatu ondoren laburmetraiaren kredituetan jaso dela Arrasateko udalaren laguntza.
- 3.- Iban del Campori 30 eguneko epea ematea, jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, Udalari adierazteko agindutako diru laguntza onartzen ote duen; epe horren barruan kontrakorik adierazi ezean, ulertuko da inplizituki onartzen duela. Laguntza onartzen duela adierazteko bidal dezake Kultura sailera mezu elektroniko bat.”

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Edozelan ere, nahi izanez gero, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu aurretik, BERRAZTERTZE ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu; horretarako, HILABETEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, haren aurka, zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, Donostian; horretarako, BI HILEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Kodea	BB21/01103	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/urr./04	CUDO	000.0055.AAAAMS2T.H.Ytuy
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAMS2TH.Ytuy		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2021KZUD0006

Gaia: SORBELTZA IZENBURUA DUEN
EUSKARAZKO FIKZIOZKO FILM LABURRA
AMAITZEKO LANKIDETZA PROPOSAMENA
Hasiera eguna: 2021/09/02

Hori guztia egin dezakezu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114 c), 123 eta 124 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera, eta uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.

Eta horretaz gainera, bidezkoztat jotzen baduzu, beste edozein egintza edo errekurso aurkeztu dezakezu.

Idazkaria

IVAN DEL CAMPO URIBARRENA
BUENAVISTA, - .
20016 DONOSTIA

Kodea	BB21/01103	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/urr./04	CUDO	000.0055.AAAAMS2T.H.Ytuy
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAMS2TH.Ytuy		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

